



Sagrado Corazón Mundaiz

HAURTZAINDEGI ZERBITZUA

Goizean goiz eskoara etortzeko beharra duzuenentzat, eskolak haurtzaindegiko zerbitzua eskaintzen du, HH1 eta LH6 maila bitarte. Haur Hezkuntzako geletan egiten da eta bertan hainbat andereño egoten dira umeen zaintzaren ardurapean.

Etapen arabera, haurtzaindegiko aukerak hurrengoak dira:

HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT	LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT
Goizeko haurtzaindegia:	Goizeko haurtzaindegia:
1go aukera: 7:30tatik 9tara (1h 30min)* 2en aukera: 8:15tatik 9tara (45min)	1go aukera: 7:30tatik 9tara (1h 30min) 2en aukera: 8:15tatik 9tara (45min)
Arratsaldeko haurtzaindegia:	
3en aukera: 16:30tatik 17:15tara (45min) 4en aukera: 16:30tatik 18:00tara (1h 30min)*	
Haurtzaindegi konbinatua:	
5en aukera: 8:15tatik 9tara eta 16:30tatik 17:15tara (1h 30min)	

**Legediari jarraituz, egun batean haurtzaindegian ezingo da ordu eta erdi baino gehiago egon, umeek eskolan egon ahal diren gehieneko ordu kopurua gainditzen dituztelako, beraz ezingo da 1go eta 4garren aukerak batera hartu.*

Funtzionamendua

Haurtzaindegiko aukera bat aukeratu eta gero, tarte horren barruan umea eskolan utzi edo jaso ahal izango duzue, hau da, lehenengo aukera hartuta, adibidez, 7:30tatik aurrera umea eskolan utzi ahal izango duzue. Bigarren aukera hartuta, 8:15tatik aurrera utzi ahal izango duzue. Haurtzaindegiko atera 8:50tan itxiko da ikasleak beraien geletara eramateko denbora izateko. Arratsaldean funtzionamendua berdintsua izango da, hirugarren aukera hartuta, 17:15ak arte umea jasotzeko aukera izango duzue, laugarrena aukeratuta 18ak arte jasotzeko aukera izanda. Goizeko haurtzaindegia Haur Hezkuntzako eraikineko HH2B eta arratsaldekoa HH3B geletan egingo da. Bertan sartzeko patiora ematen duten geletako ateak erabiliko dira. Egun solteetan haurtzaindegia erabiltzeko aukera ere badago; goizez bada, ikaslea haurtzaindegia egiten den geletara eramatea baino ez da egin behar, bertako arduradunek zein egunetan joan den apuntatuko dute eta hilabete bukaeran kontutik pasako da. Arratsaldeko zerbitzua erabili nahi izanez gero (Haur Hezkuntzako ikasleentzat soilik), tutoreari abisatu edo haurtzaindegia@gmundaiz.com –era email bat bidali beharko da zein egunetan geldituko den eta zein orduetan jasoko den abisatuz.



Sagrado Corazón Mundaiz

Jardunaldi trinkoa (Haur Hezkuntzako ikasleentzat bakarrik)

Jardunaldi trinkoa egongo den egunetan (Santo Tomas eguna, Polikarpo Anaiaren eguna, ekaineko azkeneko asteak...) arratsaldeko hartzaindegiko zerbitzua ere eskainiko da baina beste ordutegi batekin (14:30tatik 15:30tara edo 16:30tara). Bertan apuntatzeko, data horiek baino lehen bidaltzen den galdetegietan apuntatu beharko zarete. Kurtsoan zehar arratsaldeko hartzaindegiko zerbitzua erabiltzen baldin bada, ez du kosturik izango; bestalde bakarrik jardunaldi trinkoa dagoen egun horietan erabiltzen bada, egun solteetako kuota kobratuko da.

Kuotak

Aukeratutako ordutegia	Kuota
45 minututako hartzaindegi zerbitzua	19€
Ordu bat eta erdiko hartzaindegi zerbitzua	34€
Egun solteak	6,5€

Kurtso osoko hartzaindegira apuntatzeko modua

Galdetegi bat besterik ez da bete behar, [hemen](#) Haur Hezkuntzako ikasleentzat edo [hemen](#) Lehen Hezkuntzako ikasleentzat klikatuta irekiko dena. Kuota kontu korrontetik pasako zaizue eskolako kuotarekin batera.

Edozein zalantzarik izanez gero hartzaindegia@gmundaiz.com posta elektronikora idatzi eta bertan argituko zaizkizue.